



**ZALDIBIKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

**ZALDIBIAN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO**  
**KOMUNIKAZIO tresna berria**  
[www.zaldibia.org](http://www.zaldibia.org) PROIEKTUA



## ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

### SARRERA

Zaldibia 1500 biztanle inguruko Gipuzkoako herri txiki bat da, Goierri eskualdean kokaturik dagoena. Txikia izanagatik herri bizia eta parte hartzailea dela esan genezake baina maiz, parte hartzeko hori bideratzeko tresnak falta zaizkigu.

Herri txikia izanagatik ekimen eta egitasmo asko antolatzen dira, askotan elkar zapaldu eta elkarren berri ez jakiteak buru hauste eta indar dispertsio izugarria suposatzen digu. Adibidez herriko informazioa biltzen eta zabaltzen duen aldizkaririk ere ez dugu.

Bide horretan, internet eta teknologia berrien garaian murgildurik gauden honetan, ezinbestekoa deritzogu aukerak irekitzeari ekitea. Baina ez soilik teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aurrenarenengatik baizik eta gaur egun parte hartzea sustatzeko, herrian sortzen den informazioa biltzea bera helburu bihurtu delako.

Proiektu hau, parte hartzea sustatzeko abiatutako bideko urrats moduan ulertzen dugu, herri mailako talde, elkarte, eragile eta egitasmo ezberdinak partaide bihurtu ditugu proiektu honetan. Partaide eta ardatz gehienbat proiektuaren ardatza bera parte hartzea bihurtu bai da, hori ezean tresna honek ez luke zentzurik ez eta etorkizunik.

### HELBURUAK

- Herritarren parte hartzearen bidez, herriko informazioa bildu, landu eta zabaltzeko tresnak sortzea.
- Komunikazio tresna honen bidez, herri bizitza osatzen duten egitasmoetan herritarren parte hartzea sustatzea.
- Herritarren indarrak bildu eta optimizatzea.
- Informazioaren zabalpena sustatu eta kudeaketa demokratizatzea.
- Parte hartzearen inguruko ikuspegia eta kontzientzia landu eta garatzea.
- Herri txikietan bizi dugun burbuila hautsi eta

### DESKRIBAPENA

Zaldibiako herri atari digitala [www.zaldibia.org](http://www.zaldibia.org)

Herriko talde eta eragile ezberdinak osatu eta ezaugarrituko duten ataria izango da. Zaldibiako herri informazioa bilduko duena, Udal batzordetako informaziotik hasi eta azken talderaino iritsiko dena.

Herrian dauden egitasmo, asmo eta ekimenak elkar topatuko diren gurea sortu nahi dugu. Honela egitasmo eta taldeen arteko harremanak sendotu eta herritarren parte hartzea sustatzea espero dugu.

Fisikoki web orrialde bat izango bada ere, praktikan Zaldibiako herri informazioa bilduko den ataria izango da [www.zaldibia.org](http://www.zaldibia.org).

Erabiliko diren programazio lengoaiak eta data basea software librea izanik ezagutza aurreratuak dituen beste edozein programatzailek webgunea moldatzeko edo hedatzeko aukera izango du. Horrek hornitzailearekiko menpekotasuna desagerrarazten du.

Argazkiak, agiriak, egitarauak, kronikak, denetik jasoko dituen gune honek, bai eta udaleko berriak ere. Gaur egun sareak eskaintzen dituen baliabide libreak oinarri hartuta Zaldibiako herriari lekutxo bat sortuko diogu sarean.



## ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

### PARTAIDEAK

Jada proiektu hau abiatu dugu, herriko talde eta elkarte ezberdinekin lehen bilkurak egin ditugu eta beraien parte hartzeko konpromisoa lortu dugu. Horien artean hemen dituzue batzuk:

- BETI GAZTE elkarte (Jubilatu elkarte)
- IZTUETA dantza taldea
- LARDIZABAL herri ikastetxea
- ZALDIBIAKO GAZTE ASANBLADA:
- GAILURRERANTZ MENDI ELKARTEA:
- TELLABERRI ARETO FUTBOLA:
- ZAPE POTTOLA ELKARTEA:
- ZALDIBIAKO AHUNTZ SAILA:
- PELOTA ESKOLA:
- DAMIXELAK emakume taldea:
- HERRIRA ekimena:
- ZALDIBIA HERRIGINTZAN udal taldea
- ZALDIBIAKO GURASO ELKARTEA:
- ZUBI BURU ELKARTEA elkarte gastronomikoa
- GAZTELU ELKARTEA: elkarte gastronomikoa
- Zaldibiako HERRI KIROL taldea

### PROIEKTUAREN XEHETASUNAK

Gaur egun herrian antolatzen diren ikuskizun eta ekimenen gaineko informazioa ez da modu osatuan biltzen. Kultur batzordetik edo kultura sailetik zuzenean antolaturikoak bakarrik bildu ohi dira bi hilero plazaratzen den informazio orritxoan.

Herri gisa batu eta informazioa bilduko duen tresna falta da. Hemen mahai gaineratzen den proiektuak ez ditu ditugun gabezia guztiak estaltzen, ez digu informazioa berak bilduko, baina lan horretarako bideak erraztuko dizkigulakoan gaude.

Herriko taldeei zuzenean eskainiko zaien tresna izanik, informazio guztia gune bakar batean biltzea lortzea da helburua, gune honetatik bere osotasunean proiektatzeko aukera sortu nahi bai dugu..

### PROIEKTUAREN GARAPEN FASEAK

#### 1.go fasea: Herriko talde eta eragileekin bilkurak

Zaldibiako Udalak herriko talde eta eragileekin hainbat bilkura egin ditu. Bilkura hauetan behar ezberdinak agertu dira:

- **Gailurrerantz mendi taldea:** Gure informazioa sarean jartzea lortu genuen, [www.gailurrerantz.org](http://www.gailurrerantz.org) webgunearen bidez. Kontua da lehen ez zela tresna eraginkorra, Zaldibian internetaren zabalpena oso mugatua zegoelako batetik, eta bestetik inor gutxik jotzen zuelako zuzenean gure webgunea ikustea.



## ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

- **Tellatuberi areto futbol taldea:** Gaur egun gure informazioa zabaltzeko beharra somatzen dugu, gero eta jende gutxiago dator partiduak ikustera. Horrez gain gainerako taldeak bezala gure berri zabaltzea nahi dugu, baina ez dugu bitartekorik. Maiz gure berri inork ez duela sentitzen dugu.
- **Gazte Asanblada:** Urtero hainbat eta hainbat ekimen antolatzen ditugu eta urte batetik bestera zer antolatzen dugun eta nola ahaztu egiten zaigu, gainera argazkiak etabar ez daude inon bilduta... zaldibiko gazteok gure ekimenen berri eman eta jasotzeko webgune bat behar dugu.
- **Zaldibiako Udala:** Zaldibiako udalak gaur egun abian dituen batzordeetako informazioa jaso eta zabaltzeko beharra ikusten du. Herri bezala ikuspegi orokorra jaso eta herriko talde ezberdinei txapel moduko bat eskaintzeko beharra ere bai.
- **Kultura batzordea:** Urtero herriko talde ezberdinei luzaturiko laguntzak justifikatzeko memoriak aurkeztu behar izaten dira. Zailtasunak izaten dituzte taldeek horretarako eta ondo legoke talde bakoitzak bere informazioa zintzilikatuko zukeen gunen bat izatea.

Lehen fasean, ondorengo taldeekin bildu gara: Lardizabal eskola, guraso elkarte, areto futbola, gazte asanblada, damixelak, mendi taldea, Iztueta danza taldea, zape. Zazpi eta beti gazte elkartearekin besteak beste.

### 2.go fasea: Proiektuaren ezaugarritzea

Lan talde bat osatu dugu Zaldibiako Udala, areto futboleko partaide bat eta kultur etxeko teknikariek.

Lan talde honek ideari forma eman eta IZT enpresari eskatu dio proiektuari forma emateko eta teknikoki behar horiei erantzuneko dien tresna sortzeko.

### 3.go fasea: Proiektuaren eraikuntza teknikoa

IZT enpresak [www.zaldibia.org](http://www.zaldibia.org) helbidean kokatuko litzatekeen proiektuaren aurre zirriborro bat aurkeztu du.

Aurre proiektu horri forma eman diogu lan taldeko partaideok bakoitzak bere ekarpenak txertatuaz eta lehen faseko beharrei erantzuteko egokituaz.

### 4.go fasea: Proiektuaren abiatzea

Gaur egun jada proiektua eraikita dago. [www.zaldibia.org/ataria](http://www.zaldibia.org/ataria) gunea ikus daiteke frogetan. Herriko talde ezberdinei proiektu erakutsi eta beraien ekarpenak txertatzen ari gara.

### 5.go fasea: Proiektuaren sustapena

Epe motz batean proiektua publikoki aurkeztuko dugu. Hemendik aurrera talde bakoitzak bere webgunea izango du eta herri osoko informazioa batuko duen webgune bat osatuko da.



## ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

Webguneak plazaratutako egitasmo bakoitzaren balorazioa egiteko aukera izango du barne mailan. Informazio honekin memoria txostena osatuko du automatikoki tresnak.

Talde bakoitzak webgune propioa du. Webgune horretan plazaraturiko guztia bilduko du zaldibiako herri atariak.

Herri mailako agenda bat osatuko da. Talde bakoitzak bere egutegian zerbait sartzen duen bakoitzean agenda orokorrean ere agertuko da.

Talde bakoitzak bere argazki, kartel, informazio, harremanetarako bidea, eta sortzen duen oro bertan gordetzeko aukera izango du.

## BALIABIDE TEKNIKOAK

Fisikoki denok ezagutzen dugun web orrialde bat izango bada ere, praktikan Zaldibiako herri informazioa bilduko den ataria izango da [www.zaldibia.org](http://www.zaldibia.org).

Erabiliko diren programazio lengoaiak eta data basea software librea izanik ezagutza aurreratuak dituen beste edozein programatzailek webgunea moldatzeko edo hedatzeko aukera izango du. Horrek hornitzailearekiko (kasu honetan IZT) menpekotasuna desagerrarazten du.

Argazkiak, agiriak, egitarauak, kronikak, denetik jasoko ditu gune honek, bai eta udaleko berriak ere. Gaur egun sareak eskaintzen dituen baliabide libreak oinarri hartuta Zaldibiako herriari lekutxo bat sortuko diogu sarean.

## WEB ATARIAREN ATALAK

- [www.zaldibia.org/udala](http://www.zaldibia.org/udala)
  - o Udal batzorde ezberdinetatik lantzen eta gehitzen diren albisteak.
- [www.zaldibia.org/kulturetxea](http://www.zaldibia.org/kulturetxea)
  - o Ikuskizunak, emanaldiak,
  - o Ikastaroak, tallerak, parte hartzeko eskaintzak, ...
- [www.zaldibia.org/jaiak](http://www.zaldibia.org/jaiak)
  - o Atal hauek jaien testu inguruan bakarrik garatuko lirateke:
    - Santa Fe jaiak
    - Ardiki eguna
    - Gazte Festak



**ZALDIBIKO UDALA**  
(Gipuzkoa)

- Auzoetako jaiak

**Lehenengo fasean martxan jarri nahi ditugun guneak:**

BETI GAZTE elkarteak: [www.zaldibia.org/betigazte](http://www.zaldibia.org/betigazte)

IZTUETA DANTZA TALDEA: [www.zaldibia.org/iztueta](http://www.zaldibia.org/iztueta)

LARDIZABAL herri ikastetxea: [www.zaldibia.org/lardizabaleskola](http://www.zaldibia.org/lardizabaleskola)

ZALDIBIAKO GAZTE ASANBLADA: [www.zaldibia.org/gazteasanblada](http://www.zaldibia.org/gazteasanblada)

GAILURRERANTZ MENDI ELKARTEA: [www.zaldibia.org/gailurrerantz](http://www.zaldibia.org/gailurrerantz)

ARETO FUTBOLA: [www.zaldibia.org/futbola](http://www.zaldibia.org/futbola)

POTTOLA ELKARTEA: [www.zaldibia.org/zape](http://www.zaldibia.org/zape)

ZALDIBIAKO AHUNTZ SAILA: [www.zaldibia.org/zas](http://www.zaldibia.org/zas)

PELOTA ESKOLA: [www.zaldibia.org/eskupilota](http://www.zaldibia.org/eskupilota)

HERRI KIROL TALDEA: [www.zaldibia.org/herrikirolak](http://www.zaldibia.org/herrikirolak)

DAMIXELAK emakume taldea: [www.zaldibia.org/damixelak](http://www.zaldibia.org/damixelak)

HERRIRA ekimena: [www.zaldibia.org/ttirriki](http://www.zaldibia.org/ttirriki)

ZALDIBIA HERRIGINTZAN: [www.zaldibia.org/zaldibiaherrigintzan](http://www.zaldibia.org/zaldibiaherrigintzan)

**Bigarrenengo fasean martxan jarriko diren guneak:**

ZALDIBIAKO GURASO ELKARTEA: [www.zaldibia.org/gurasoelkarte](http://www.zaldibia.org/gurasoelkarte)  
[gurasoelkarte@zaldibia.org](mailto:gurasoelkarte@zaldibia.org)

ZALDIBIAKO PRODUKTU, ZERBITZU ETA KOMERTZIOEN GIDA:  
[www.zaldibia.org/gida](http://www.zaldibia.org/gida)

ZALDIBIAKO ZUBI BURU ELKARTEA: [www.zaldibia.org/zubiburu](http://www.zaldibia.org/zubiburu)  
[zubiburu@zaldibia.org](mailto:zubiburu@zaldibia.org)

ZALDIBIAKO GAZTELU ELKARTEA: [www.zaldibia.org/gaztelu](http://www.zaldibia.org/gaztelu)  
[gaztelu@zaldibia.org](mailto:gaztelu@zaldibia.org)